

Zuretzat zer da Bizkaia Talent? lehiaketaren zehaztapen eta baldintzak

1. Eraberrikuntzan eta ezagutzan adituak diren pertsonen mugikortasuna sustatzeko elkarteak, Bizkaia Talentek, Bizkaiko Parke Teknologikoa, Laga Bidea, 804. eraikina, 300. modulua, PK 48160, Derio, Bizkaia helbidea eta G95326583 IFK dituenak, *Zuretzat zer da Bizkaia Talent?* lehiaketa antolatu du, erabiltzaileek elkartearen jarduerari buruz eta euren artean daukan eraginari buruz zer uste duten jakiteko.
2. Sarian parte hartzeko, ezinbestekoa da lehiakideak [Bizkaia Talenten webgunean](#) altan egotea.
3. Lehiatzeko epea 2018ko abenduaren 12tik 2019ko urtarrilaren 15era arte egongo da zabalik.
4. Lehiaketari begira, [horretarako atondutako plataformaren](#) bidez, testu laburra bidali beharko da metafora, istorio, marrazki, eta abarren moduan, parte-hartzaileentzat (goi-prestakuntzadun profesionalak edo erakundeak) Bizkaia Talent zer den azaltzeko.
5. Lehiaketako irabazleak bi eratakoak izango dira: goi-prestakuntzadun profesionala edota erakundea. Bi kasuetan, altan egon beharko dira [Bizkaia Talenteko](#) datu-basean, lehiaketan parte hartzeko eta, horren ondorioz, saria irabazi ahal izateko.
 - a. Goi-prestakuntzadun profesional irabazleak prestakuntzarako 300,00 €-ko balea lortuko du gehienez. Prestakuntza hori on line edo zuzeneko izango da, eta Bizkaia Talentek irabazlea dela jakinarazi osteko hurrengo 12 hilabeteetan egin beharko du, matrikula edo izena emateko orria eta ordainagiria aurkeztu ondoren.
 - b. Erakunde irabazleak erreportajea argitaratu ahal izango du, besteak beste, talentua kudeatzeko garatzen dituen jarduerak eta neurriak zein diren azaltzeko. Erreportaje hori Bizkaia Talentek adierazitako baldintzetan egin eta zehaztuko da, eta Bizkaia Talenten webgunearen bidez zabalduko da, baita 11.000tik gora harpidedun dituzten hileko *newsletter*retako batean ere.
6. Bidalketa bat baino ez da onartuko lehiaketako, goi-prestakuntzadun profesionala edo erakundeko ordezkaria den kontuan hartu gabe.
7. 2019ko otsailaren 1a baino lehen erabakiko dira zein diren irabazleak. Bizkaia Talent posta elektronikoz jarriko da harremanetan haiekin, irabazleak direla jakitera emateko.
8. Irabazleei e-postaz jakinarazi zaienetik astebete igaro bada eta, tarte horretan, sariaren kudeaketari begira irabazle bakar bat ere Bizkaia Talentekin harremanetan jarri ez bada, eman gabe utziko da.
9. Bizkaia Talentek bere webgunean, sare sozialetako beste kontu batzuetan eta beste edozein zabalkunde-bidetan eman ahal izango du irabazleen berri.
10. Norberaren datuen babesa: lehiakideek eta Bizkaia Talentek behar besteko konpromisoa hartzen dute, legearen arabera zehaztutako babes-neurriak ezartzeko eta, horrela, sari honen zehaztapen zein baldintzetan adierazitako jardueren ondorioz erabili daitezkeen datu pertsonalen pribatasuna bermatzeko.
11. Bizkaia Talentek lehiaketa hau luzatzeko edo bertan behera uzteko eskubidea dauka.
12. Bizkaia Talentek lehiaketako saria eman gabe uzteko eskubidea dauka, lehiakideen ekarpenek elkarteak eskatutako gutxieneko maila lortzen ez badute.
13. Edonola ere, saria ezeztatuko da, saria eman zenean parte-hartzaileak argitalpen honetan adierazitako eskakizunak betetzen ez bazituen edo saria lortzea eragozten duen eskakizun edo baldintzaren bat sortu bada.
14. Bizkaia Talentek ez du inolako erantzukizunik izango, irabazleak jasotako saria txarto erabiltzen badu.
15. Lehiaketako parte-hartzaileak Bizkaia Talentekin etengabe jarri ahal izango dira harremanetan awards@bizkaialalent.eus posta elektronikoa bidez, lehiaketarekin lotutako edozein zalantza edo galdera badute edo horrekin lotutako erreklamazioen bat aurkeztu nahi badute. Horretarako epea 7 egun naturalekoa izango da irabazleen berri ematen denetik hasita.
16. Edozein gatazka gertatuz gero, justizia-auzitegi naturalak Bizkaikoak izango dira.
17. *Zuretzat zer da Bizkaia Talent?* lehiaketako bi modalitateetako parte-hartzaileek zehaztapen eta baldintza guztiak onartzen dituzte.